

PRODUKTUAREN DESKRIBAPENA

Gure produktua "Esekitoki automatikoa" deitzen da, eta esekitoki bat da, begi hutsez besteek bezalakoa eman dezakeena, baina, egia esan, gureak sensore bat implementatuta dute, euria detektatzen duenean automatikoki ixten dena, hortik datorkio izena. Horrela, jendeak ez du zintzilikatutako arropaz ardura egon beharko eguraldi txarra egiten duenean.

Horretarako, esekitokiak eraikitzen eta sensoreak programatzen espezializatutako jendea kontratatuko dugu, beharrezko materialak emango dizkiguten Espainiako enpresa eta fabrikekin lan egingo dugu, gure produktuaren publizitatea eta erakusketak egingo ditugu hainbat dendatan, bezeroek informazio gehiago eskuratu ahal izango duten web orri batera sartzea erraztuko dugu eta, horrez gain, gure produktua erosten duen jendeak pintza sorta bat jasoko du doan arropa zintzilikatu ahal izateko.